

Dantza tailerreko artistak

140 haur eta gaztek
dantzatu zuten ▶ 7



Inoiz baino bereziago egin dute erraldoiek Sanjoanetako azoka

AZOKA ▶ Jende dezente izan zen; Zerkausian sariak eman zizkieten postu onenen jabeai

ERRALDOIAK ▶ Herriko eta kanpoko erraldoiek kaleetan jardun zuten buruhandiekin

HERRI KIROLAK ▶ Zizurkil nagusitu zen Usabalen joko eta herri kirolen jaialdian ▶ 4-5

ELENE ARANDIA ▶
ABESLARIA



DANI GIBELALDE

«Nahiago dut
bakarlari gisa
aritu taldean
jardun baino»

ETBko 'Show BT'-n
aritzen da aktore eta
abeslari ibartarra ▶ 2-3

TOLOSA ▶

**Uxola sariak
banatuko
dituzte bihar
Leidorren**

Laskorain ikastolako
ikasleek erreztaldia
eskainiko dute ▶ 6



Erraldoiak eta buruhandiak azoka gunean izan ziren atzo kalejiran; argazkian, Triangulo inguruan, jendea haiei so. IRATXE ETXEBESTE

Km 0 hemen dago



VOLVO S40 1.9 Diesel
Km 0 eta enpresa = 115 CV
19.800 € (3.295.000 PZTA)
PREZIOA **23.820 €** (3.960.000 PZTA)



VOLVO V40 1.9 Diesel
Km 0 eta enpresa = 115 CV
20.975 € (3.490.000 PZTA)
PREZIOA **25.195 €** (4.190.000 PZTA)



LR DEFENDER 90 TD5
Enpresan erabilia = 122 CV
23.500 € (3.910.000 PZTA)
PREZIOA **29.940 €** (4.980.000 PZTA)



VOLVO S60 2.4 Diesel
Km 0 eta enpresa = 130 CV
26.900 € (4.475.000 PZTA)
PREZIOA **30.100 €** (5.010.000 PZTA)

FINANTZIAKETA BEREZIA 120 HILABETERA • 5 urteko bermea

Eusko Jest

Donostia-Hernani errep. • Tel. 943 33 18 16 • HERNANI (Galarreta pilotalekuaren eta Opel Auto Hernaniren ondoan)
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era, Larunbatetan 10:00etatik 13:00etara • 04/08/07 arte balio duen eskaintza



Uzturretik
JOXAN ORMAZABAL

Bestearen ona

Gauza ederra da bestearen onarekin poztea. Geure inguruan gu baino hobeto bizi denen bat ikusten dugunean, bizitzan guk baino zorte hobea eduki duenen batekin topo egiten dugunean, gure bizilagunak arazo ekonomikorik ez daukala eta seme-alaba azkarrek eta jatorrak dituela konfaturatzen garenean, bidezkoena, osasungarria, poztea da. Orduan badirudi geu ere bestearen zorion pusketatxoak dastatzen ari garela; eta horrek ez du kalterik, alderantziz baizik.

Baina bestearen onaren aurrean odol txarra egiten duenik ere bada, eta horrek ez dakar gauza onik. 'Horrek hori egin badu, nik zergatik ez?'. 'Nondik atera du horrek horrelako autoa erosteko dirua, nik baino soldata txikiagoa dauka eta?'. 'Beti esaten ari gara Zarautzen apartamentu bat erosi behar dugula, eta ez dugu inoiz erosten'. Eta zenbat horrelako pentsakizun eta konbertsazio! Behin baino gehiagotan, geure ahalmenen mugak hautsi eta besteak imitatzen hasten gara, inbidiak eraginda. Eta ezin dugunean, bestearen onak, materialak edo beste maila batekoak, hozka egiten digu, erre egiten gaitu. Eta ez du merezi, mundu honetan lau egun bizitzeko, geure buruari hain tratu txarrik ematerik.

Bukatzeko, istoriotxo bat. Errege batek bi kortsau zeuzkan, eta bat erabateko bekaiztia zen, ezin zuen lagunaren onik eraman. Bekaiztiari gaixotasun hori sendatzeko, behin, erregeak bi kortesauei deitu zien, eta esan zion bekaiztiari:

—Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut; baina zure lagunari zuri baino bi aldiz gehiago emango diot zuk eskatzen duzunetik. Zer nahi duzu?

Eta honela erantzun omen zion bekaiztiak:

—Atera iezadazu begi bat.

GUTUN@K ▶



Esther Murelaga andereari

2004ko ekainaren 4an jasotako zure gutunean egindako baieztapen batzuk argitu eta puntualizatu beharrean sentitzen gara. Aipatzen dituzun zenbait gairi buruzko nahiko informaziorik ez duzula uste dugu:

1. Tolosako Zentro Gerontologikoan inoiz ez da egoitzako ingresorik eta eguneko atentziorik itxi obregatik.

2. Aurtun zentrorako inbertsioetarako eurorik ez dago. Nor engainatu nahi duzu eraikinen egokitze lanak hasi behar dituztela esanez?

3. Ingresoen itxieraren berririk ez die Departamenduak eman udalei, guk informatu behar izan ditugu itxieraz udaletako gizarte laguntzaileak eta senitartekoak.

4. Eguneko atentzio programa eskatu duten pertsonak badirela badakigu, plazak baditugu eta ezin ditugu artatu. Zein irteera emango zaien aurreikusi al dute? Itxiera hauekin ere gizarte baliabideak ari dira xahutzen.

5. Gure etorkizun guztia egiten ari diren azterketan baldin bada, gure aurretik aldaketak egitea kontraesana da. Edo zer egin behar duten badakite eta gu gara ezer ez dakigunak?

6. Lantzeria, jantokia eta zainketa pertsonalen zerbitzuen kontratazioan egindako aldaketek agian Gipuzkoako lurraldean oreka izatea bilatuko dute, baina kalitatezkoak diren ezin daitezke esan. Ba al dakite zein egoeratan aurkituko garen hilaren bukaeran?

- Garbategia egoitzan dauden —61 pertsona— arroparekin eta funtzionarioen uniformeekin... geldirik gelditzen da ostiraleko 14:00etatik astelehenero 07:00ak arte. Asteazken zehar langile bakarra dago, 35 orduko lanaldiarekin.

- Jantoki zerbitzuak lan bera egiten jarraitu beharko du: gosaria, bazkaria bi txanda eta afariak bi txanda, sukalondoa, garbiketa eta jantokiko zerbitzuak jarritzea gehituta, astezko zazpi egunetan. Zure Departamenduaren arabera, gaur egungo pertsonala ez da beharrezkoa, orduen %40 gutxiagorekin nahikoa da.

Gehiegizko murrizketa dela iruditzen zaigu.

- Zainketa pertsonalen kasuan, orain arte horretaz arduratzen zen enpresa, EULEN, ez da enkantera aurkeztu. Zenbakiak ez zaizkiolako ateratzen suposatzen dugu eta enpresa pribatua denez, gaitzeko ez dago. Enpresa berri batek langileak hartuko dituela eta egoitzako martxan jarraitzea izatea nola bermatzen duzu? Langileei afektatzeaz gain, soldata txikiagoarekin geldituta edo joan arren, gure egoitzan daudenek behar duten atentzioa eragiten du zuzenki.

Neurri hauek guztiak kosteak eta pertsona ratioak murriztera daude zuzenduta. Badakigu Departamendua nazkatuta dagoela zuen zentroetan beste egoitzetan ordaintzen duzuen ez duzuela ordaintzen entzuteaz Gipuzkoako beste egoitzetatik. Hartzen ari zareten neurriekin asko aurreztu behar duzuela uste al duzu? Marketing kanpaina besterik ez da, eta «gurei besteak bezala exigitzen ez diegula ez dezatela esan».

Arazoa diseinatu duten asistentzia ereduak ontzat ematea da,

prezio barregarriak markatuz. Zein diputaziorik ez du garesti ateratzen zaizkion zerbitzuak kudeatzen jarraitu nahi? Oinezko herriar gisa arrazoiak emango genioke. Baina inork ez ditu duroak lau pezetatan ematen eta ez du espero enpresa pribatuak bere ardura hartzea pertsona dependenteen gaian.

Zuk eta zure zuzendariak egiten duzue Departamendu honen politika. Gero eta diru gehiago behar dela pertsona dependenteak atzitzeko? Dudarik gabe, baina zuek borrokatu beharko duzue Diputazioan gipuzkoar guztion dirua ez dadin joan bakarrik Real Sociedadera, Junta Etxe berrira (zein behar dugu?), Diputazio berriaren Jauregiaren erreformara...

Gutun honen bidez erantzuten dizugu, baina harremana korreoz jarraitzea ez zaigu efektibo iruditzen, gure (zuen eta gure) Zentro Gerontologikoak eskualdean izaten jarraitu behar duen paperaz informatzera pertsonalki zu zeorri etortzea espero dugu. Adeitasunez,

ZENTRO GERONTOLOGIKOKO
LANGILEAK ▶ TOLOSA

ELENE ARANDIA ▶ ABESLARIA ETA AKTOREA

«Edozein paper antzeztea gustatzen zait; hori ondo egitea da garrantzitsuena»

Hamalau urte bakarrik, eta telebistan abesten, dantzatzen, txistek kontatzen, antzeztan... aritu da; BT musika taldeko kide da eta disko berria aurkeztzen ariko da udan herriz herri

DANI GIBELALDE

Irailtik telebistako *Betizu* programako *Show BT*-n arituta, aurpegi aski ezaguna bilakatu da Elene Arandia ibartarra. Bertan abestu eta dantza lantzeaz gain, akademia baten barruan ikasle baten papera antzeztan du Arandiak. Programako arduradunek bost gazteko musika talde berri bat —BT taldea— egiteko Arandia aukeratu zuten. Taldekideekin batera, kontzertu pare bat eskaini ditu jadanik, eta udan herriz askotan ariko da abesten. Nondik datorkizu abesteko zaletasuna?

Beti gustatu zinen zait abestea, dantzatzea, antzerkietan aritzea. Eskolako jaietan karaoke,

dantzatzeko edo txistek kontatzeko lehiaketetara aurkeztu nintzen. Betidanik gustatu zait mundu hori. Gauza horietarako alaiak eta animatua naizela esaten didate.

Nola hasi zinen telebistan?
Betizu-n txistek kontatzen hasi nintzen duela bi urte. Betimu etorri zen Tolosara, eta bertan kantatzeko *casting* batera aurkeztu, eta hartu egin ninduten. Ondoren, beste programa batzuetarako deitu ninduten, eta bi edo hirutan egon nintzen.

Show BT eta Operacion Triunfo oso antzezekoak direla diote batzuek.

Izan daiteke. Azken finean, bi programetan abestu, dantzatu egiten da, antzerkia gutxiago. O.T.-n. Antzekotasunak badi-

tuzte. Aukeratzekotan nahiago dut *Show BT*, giro euskaldunarengatik, edota hauxe delako nik ezagutu dudana...

Zertan aldatu da zure bizitza telebistara salto egin zuenetik?

Askok ez da aldatu. Jendeak kasetik zoazela ezagutzen zaitu, kaso egiten dizu, baina besteak, lagunekin, lehengo moduan. Asteburuetan ateratzeko ez dut denbora askorik, entseuak ateratu behar dudalako, edo telebistara... beti badut zerbait.

Aukeratu. Abestu, dantzatu edo antzeztu.

Abestu eta antzeztu. Agian irekia naizelako, pertsonaien papera egitea gustatzen zaidalako... Edozein paper egitea gus-

tatzen zait; garrantzitsuena paper hori ondo egitea da.

BT taldeekin Betizu-ko jaialdian aritu zinen. Zer sentitu zenuen 50.000 ikusleren aurrean abestean?

Poz handia. Urtean zehar abesti batzuk lantzen egon ondoren, jendea horiek gustatzea nahi duzu. Jendea pozik dagoela ikustean zu ere pozik sentitzen zara. Hasieran pixka bat urduri nengoen, baina taularatu ondoren ez.

Lehenengo asteak larunbatean Tolosan eman zuten BT taldearen lehen kontzertua.

Oso gustura izan nintzen. Lehen kontzertua hemen izateak poza eman dit eta ondo ateratu. Andoainean, Azpeitian, Murtikun... beste herri batzuetan ere ariko gara udan.

Zer ikasi duzu akademian?

Ahotsa kokatzeko, nola arnastu ezarria ez izorratzeko... Nola dantzatu, dantzako mugimenduak estilo desberdinetara moldatu... Antzerkigintzan, seimenduk nola agertu, zer aurpegi jarri... Egia esan, gauza asko ikasi ditut. Gure artean, gainera, lagun giro oso ona dago, eta horrek asko laguntzen du.

Zer da zailagoa: kamara aurrean grabatzen aritzea edo zuzeneko kontzertu bat?

Zuzeneko abesten zaudenean arrisku gehiago ditzugu; akats

IRITZIA ▶ DABID ANAUT (LEITZAKO ETA ARESOKO EUSKARA TEKNIKARIA)

Hartu HITZA!

Irudia gaurko bizimoduan garrantzitsua dela ez dugu ukatuko. Gero eta pisu handiagoa dauka, gainera. Baina hitza ere beharrezkoa dela nork ukatuko du? Nekez ezagutuko dugu elkar, hitzik egin gabe. Nekez izanen dugu elkarren berri, hitzik egin gabe. Hitza, beraz, beharrezkoa eta ezinbestekoa da. Eta, nik behintzat, HITZA ere halaxekoa bihur dadin nahiko nuke: beharrezkoa, ezinbestekoa.

Berriki iritsi da Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA gurera, Leitzara eta Aresora. Duela gutxi hasi da gure etxeetara etortzen, bisitari. Etxean sartu zaigu, ia baimenik eskatu gabe, eta harrera goxoa egin diogula uste dut; gutxi-asko, asteotan denok estimatu eta jarraitu dugula esanen nuke.

Bertako egunkari honek bere burua aurkeztu du, jendartera agertu da, eta zer den erakutsi digu; bere osagai nagusia zein

den? Hurbiltasuna, jakina. Hitzako berriak irakurtzen ditugunean ez dugu ahalegin berezirik egin behar, ez dugu munduaren ezagutza apartekorik eta sakonik behar. Gureaz hitz egiten digute bertan: gure ondokoen berri ematen digute, gure herrian gertatzen dena azaltzen digute... Horrek egiten du HITZA hain produktu hurbila, hain eramanerraza. Eta, ezin izan zitekeen bestela, euskaraz, gurea eta bertakoa den hizkuntza.

Orain, berriz, gure txanda da: HITZARI etxean gelditzeko gonbitea egin behar diogu, bisitari huts izatetik, etxeko bihur dadin behin betiko. Orain arte etxean doan banatu digutena, harpidetza eginda jaso beharko dugu aurrerantz. Ahalegin txiki baten truke, herriko eta inguruko berriak izanen ditugu eguneroko, fresko-fresko, bizi-bizi, gure etxean. Aukera eskueran daukagu, orain gurea da HITZA.



Ainhoa Artetaren emanaldi berezia

ASTEKO IRUDIA ▶ Aldez aurretik ikusia zegoen arrakasta handia izango zuela, eta halaxe izan zen: Ainhoa Arteta soprano tolosarrak errezitaldi berezia eman zuen asteazkenean Tolosan, bere jaioterrian, sei urte bertan aritu gabe egon eta gero. Astebete lehenago agortuak ziren sarrera guztiak, eta jendea Leidor aretora sartu ezinik geratu zen. Ainhoa Zubillaga mezzosopranoarekin eta Pedro Jose Rodriguez pianojolearekin jardun zuen tolosarrak. IRATXE ETXEBESTE



PERTSONALKI ▶

▶ Tolosan jaioa ▶ 1989ko urriaren 27an ▶ DBH 3 mailako ikasketak bukatu berri ditu Hirukiden ▶ *Show BT* programan neska zentzudun baten papera egiten du, gauzak logikaz ikusten dituen neska batena

Musika talde bat? Evanescence. **Bakarlari bat?** Liza Minnelli eta Chenoa. **Gustuko dituzun musika motak?** Rock, cabaret, eta popa. **Aktore bat?** Kontxu Odriozola. **Zaletasunak?** Antzeztu, abestu, dantzatu, erosketak egin, lagunekin atera eta marraztu.

AHOTSA

«Arnasa nondik hartu behar den ikasi behar da eztarria ez behartzeko; arnasa sabeletik hartzen ikasi dut»



bat eginez gero kamara aurrean errepikatu dezakezu, baina zuzenean zaudenean, akatsak ez nabaritzeko inprobisatzen jakin behar duzu. Biak gustatzen zaizkit.

Abesteko, zer ezaugarri behar ditu ahots on batek?

Nota altuak abesten jakitea eta eztarria zaintzea beharrezkoa da. Arnasa nondik hartu behar den ikasi behar da, bestela ahots kordak izorratzen zaizkizu. Arnasa sabeletik hartu behar duzu, normal hartuz gero eztarria asko behartzen duzu. Trikimailu hori ikasi dut, eta orain, hitz egiterakoan ere sabeletik hartzen dut arnasa.

Etorkizunean musikatik bizitzeko itxaropenik ba al duzu?

Arte dramatikoko karrera ikastea gustatuko litzaideke. Hori izango litzateke nire ilusioa, aktore-ablesari izatea. Ez dakit zer gertatuko den, baina tira. **Bakarlari moduan, edo taldeka?**

Bakarlari bezala nahiago, baina taldeka aritzea ere asko gustatzen zait. Orain talde batean nago sartuta, oso gustura.

Erreferentzia bat.

Liza Minnelli alemaniarra. *Kabaret* filman abesten protagonista izan zen. Abeslari izateaz gain, filma eta antzezkiuzen ugari aritu da.

SANJOANAK ▶

Sanjoanen atarikoak

Sanjoanetako Azoka Bereziak Tolosako txoko ugari bete zituen atzo goiz partean, lehiaketa eta guzti; egun guztian zehar kalez kale ibili ziren Erraldoi eta Buruhandien I. Bilkuran elkartutako konpartsak

GARAZI AZKUE

Sanjoan usaina nabari zen atzo Tolosako kaleetan zehar. Festa giroa, ezohiko eta askotariko ekintzak eta musika eta dantza izan ziren, besteak beste, herrian atzo ikusi ahal izan zirenak. Batetik, Sanjoanetako Azoka Berezia antolatu zuten herriko gune ezberdinetan: Zerkausion, Trianguloan, Plaza Berrian eta San Frantzisko ibiltokian hamaika postu jarri zituzten eskualdeko eta kanpoko saltzaileek; Zerkausion, gainera postuen arteko lehiaketa antolatu zuten.

Bestetik, Erraldioen eta Buruhandien I. Bilkura zela-eta erraldoiak eta buruhandiak ibili ziren Tolosan. Honenbestez, erraldoiak saltzaileekin eta erosleak buruhandiek nahiastuta ibili ziren goiz guztian zehar. Erraldoiek eta buruhandiek arratsaldean jarraitu zuten haien jarduna.

Sanjoanetako Azoka Bereziari dagokionez, lau gunetan banatu ziren saltzaileak. Plaza Berrian artisauak bildu ziren: egurrezko eskulturak, haur arropa edota keramika postua zeuden ikusgai, besteak beste. Lehenengoz egin dute artisautza azoka aurtan. Bitxikeria moduan, Irazki elkarte kulturalak prestatutako bost kontinenteetako gutizia gastronomikoak dastatzeko aukera izan zuten bertara agertu zirenek: Txina, Argentina, Maroko edo Gineako usainak eta zaporeak zeuden eskura.

Trianguloan ere bildu ziren saltzaileak: gozoak, barazkiak eta bestelako jakiak zeuden erosgai. Baina ikusizun berezia Leaburuko Mahala baserriko Jokin Arrospidek eskaini zuen plazan, Trianguloan aritu baitzen jendeari gazta nola egiten den erakusten.



Giro aparta jarri zuten egun guztian zehar erraldioen konpartsek Tolosan; bazkaldu ondoren bildu ziren guztiak batera. I. ETXEBESTE

San Frantzisko ibilbidean herriko merkatariek jarri zituzten euren postuak, beraz, dendan saltzen dituzten produktuak erosteko aukera izan zen atzo kalean. Eta Zerkausion, ohiko postuak saritzeko lehiaketa izan zuten atzo. Irabazleek 100 euro eta garaikurra eta bigarrenek 40 euro eta garaikurra jaso zituzten. Berdura postu onenaren saria Xaki Izagirre ibartarrarentzat izan zen eta bigarren postua Anoetako Dani Oartzabalek lortu zuen. Fruta postu onenaren lehen saria hutsik gelditu zen, baina bigarrena Ikaztegiatxo Joxe Zugastirentzat izan zen.

Postu politenari ere saria eman zioten antolatzaileek: lehenengoa Urrestillako Pilar

Unanuek eraman zuen, eta bigarrena Alkizako Axun Aizeburuk lortu zuen. Eta azkenik, barietate handien izaten duen postuari eman zioten saria. Lehenengo saria Berrobiko Eugeni Agirretxerentzat izan zen eta bigarrena Anoetako Jesus Artolak etxeratu zuen.

Buruhandiak eta erraldoiak

Tolosako kale txokoak alaitu zituztenak, baina, erraldoiak eta buruhandiak izan ziren atzo. Egun guztian ibili ziren, herri ezberdinetatik etorritako erraldoi eta buruhandiak kalean gora eta behera. Tolosako Ekinbide Etxeak eta Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak antolatutako Erral-

EGITARAUA ▶

GAUR

10:00. Xake-Jokoa, Zerkausion: XXXI. Nazioarteko Lehiaketa taldeka, XXVIII. Enrique Pineda Memoriale.
11:00. San Frantzisko ibiltokian, Harizpe elkarteak antolatuta, Toka Lehiaketa.
13:00. Kontzertua Plaza Berrian, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrarekin.

doien eta Buruhandien I. Bilkura izan baitzen Tolosan.

Irundik, Hondarribiatik, Iruñetik, Lakuntzatik edota Solsonatik (Katalunia) gerturatu ziren atzo Tolosara.

Eguerdian abiatu ziren Plaza Zaharretik, txarangak eta konpartsak inguruan ziztuztela. 32 erraldoi, 42 buruhandi eta sei musika banda izan ziren San Joan festetako luxuzko iragarleak. Bazkaldu ostean, guztiak batera bete zituzten Tolosako kaleak, Alde Zaharrekoak eta Foruen Plaza eta San Frantzisko ibiltokia, esate baterako.

Antolatzaileek, ordea, ez dute aurtengoan soilik utzi nahi esperientzia bitxia, eta, erraldoi eta buruhandi horiek guztiak bi urtean behin biltzeko asmoa azaldu dute.

San Joan egunaren aurreko asteburuak eman du jada zer ikusi franko, eta hiru egun lasai egoteko hartu ondoren hasiko da berriz ere festa.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

ELEKTRIZITATEA

Euskal - Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80

MENDIA

masaia eta akupuntura
Ainhoa Kolomo

Arostegietan 17 - 1
20400 **TOLOSA**
Telf 943 67 46 53



Plaza Berrian bildu zituzten artisauen postuak. I. ETXEBESTE



Azokako eta buruhandien giroak nahastu ziren Trianguloan. I. ETXEBESTE



Zizurkilgo taldekideak atzo Usabalen harria jasotzen. G. AZKUE

Zizurkil txapeldun

Xibak antolatuta, Herri kirolen eta Jokoen Euskal Herriko finala izan zen Usabalen

G. AZKUE

Herrialdez herrialde kanporaketak egin ostean, Euskal Herriko Herri Kirolen I. Topaketako final handia jokatu zuten atzo Tolosako Laskorain ikastola ondoko frontoian, Usabalen. Euskal Herri osotik etortzako 24 herritako taldeak batu ziren norgehiagokan, eta tartean, Tolosaldeko talde bakarra: zizurkildarrena. Gipuzkoako kanporaketan Zizurkil bigarren lekuan geldituta pasatu zen finalera.

Goizean hasi eta eguerdira arte luzatu ziren lanak. Proba guztiak bukatu zirenean, antolatzaileek sailkapen guztia eman zuten atzetik aurrera, eta azkenean, talde irabazlearen izena esateko unea iritsi zenean, Zizurkil izena entzun zen.

Bigarren postuan Idiazabal herria gelditu zen eta hirugarren herria Usurbil izan zen.

Jende zama, gizon proba, txingak, sokatira, lokotxak, harri jasotzea, zaku lasterketa,

lasto altxatzea eta dantza probak izan zituzten partaideek txandaka egiteko.

Talde indartsua

Sei mutil eta sei neska osatutako taldeak ziren guztiak. Zizurkildarren taldean, nesketan, Roxi Urkola, Nerea Lizarraga, Izaro Lizarraga, Aizpea Gaia, Alaitz Ormazabal eta Aitziber Ibarbia aritu ziren. Mutiletan, berriz, Tximel, Auritz Alkorta, Garikoitz Aburuza, Mikel Ugartemendia, Joseba Otaegi eta Juan Joxe Ugartemendiak hartu zuten parte.

Ikusmin handia sortu zuen topaketak, izan ere, 24 herrietako parte hartzaileak, lagunak eta ingurukoak bildu ziren frontoian. Harmailak bete ziren eta giro aparta izan zen probetan zehar bukaera arte; bakoitzak bere koloreak eta herritarrak animatu zituen gogotsu.

Topaketa bukatu ostean bazkaria izan zuten parte-hartzaileak eta ingurukoak.

AZOKA ▶

Eskaintza zabala eta jende ugari azoketan

Berrikuntza ugari izan zen azokan; eguraldi txarra bazen ere jende ugari bildu zen atzo

PABLO ALBERDI

Sanjoanetako azoka berezia izan zen atzo Tolosan eta egun animatua izan zen. Eguraldiak lagundu ez arren, euria egin baitzuen ia goiz osoan, erosle eta bisitari dezente ibili zen azoketan; eskaintza ere zabala izan zen.

Berrikuntzak ere izan ziren atzokoan, eta, pasa den aste-koei gehituta izugarritzko zerrenda osatu zen: azak, azaloreak, tomateak, letxuak, porruak...

ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Onttoak	2,00	-
Oilaskoa (3 aste)	1,05	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Patata	0,66	1,00
Lekak	5,00	-
Zerba	1,00	2,50
Arrautzak	1,30	2,10
Produktu ekologikoak		
Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Baratxuria	1,62	7,60
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,74	2,01
Erremolatxa	1,66	-

Berdura plaza

Lilia	1,20	-
Ziklamena	5,50	-
Txilarra	4,50	-
Konifera	6,00	-
Geranioa	2,00	-
Alegria	1,00	-

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

elketa
jaketrea
Tel.: 943 65 39 92
Mahaiaik
erreserbatzeko
deitu:
943 65 39 92
607 991 224

OTEGI
eraikuntzak, s.l.
Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

bizitegia
Euskal Herria, 56 • 20400 IBARRA
Tel. 943 67 58 77
Faxa: 943 67 21 40
Zumeta

berria
publizitatea:
publi@iragarri.net
☎ 943 30 40 30
Euskaldunok behar dugun
berria

KULTURA ▶

Literatura eta musika uztarturik Leidorren

Litetarura, musika, kantua eta dantza izango dira urteroko Uxola sarien banaketa ekitaldiaren baitan; Laskorain ikastetxeko ikasleek hartuko dute parte

INÍGO TERRADILLOS

Musikaren Nazioarteko egunean, arratsalde lasai eta atseginerako tartea izango da Tolosako Leidor aretoan, musika, kantua, dantza eta literatura uztartuko diren ospakizunean. Urtero izaten den Uxola literatur sarien banaketak aurtten berrikuntza izango du. Laskorain ikastetxeko ikasleek poesia errezitaldia eskainiko baitute ekitaldi honetan.

Duela bost hilabete ere izan zen musikak eta dantzak lagundutako poesia errezitaldia, eta orain, bertan parte hartu zuten Laskorain ikastolako gazteek hartuko dute lekukoa.

Teknologia berriei inguraturik gauden garai honetan, badirudi poesiak lekuri ez duela, eta are gutxiago gazteen artean, baina modak eta berrikuntzak alde batera utziz, eta poesiaren zaletasuna erakutsiz, ikasleek beraiek idatzitako poesiak jendaurrean azaltzeko aukera izango dute beste behin.

Otsailean izan zen errezitaldian, Tolosako ikastetxe batzuez gain, Baionako eta Oñatiko ikasleek ere hartu zuten parte; guztia pentsatu bezala irten zen eta denak pozik geratu ziren egindako lanarekin. Laskorain ikastolako ikasleek izandako esperientzia aberasgarria errepikatzeko gogo, ekitaldi gehiago egiteko nahia eta asmoa adierazi zuten eta itzuli moduko bat egitea proposatu. Azken hau egitea posible izan ez bada ere, izango dute, azkenean, beraien dohai artistiko eta literarioak erakusteko aukera. Lehen bihar, herriarren aurrean.



Otsailean egin zuten modura, musika, dantza eta kantuz josiko dute poesia Laskoraineko ikasleek. HITZA

Helena Baraibar eta Helena Larrañaga, Laskorain ikastolako irakasleak dira hau guztia prestatzearen ardura izan dutenak. «Batxilergoko ikasle guztiek idatzi zituzten poemak eta guztietatik aukeraketa egin beharra zegoen, denborak eskatuta batzuk baino errezitatu ezin daitezkeelako; aukeratzeko orduan teknika literarioa eta gai aniztasuna hartu dugu kontuan», esan diote HITZARI. Behin poemak aukeratu, olerki horiek errezitatuko zituzten esatariak aukeratu zituzten ikasleek ondoren.

Poesiak berez duen liluragarritasunari kantuak, dantzak eta musikak gehitzen duten edertasuna eta ikusgarritasu-

na gehitu nahi izan diote ospakizun honetan. Kanturako korroa osatu eta entseguak egin dituzte asteetan zehar hainbat egunetan. Dantzarako, berriz, dantzan dakiten ikasleen artean egin dute taldea, eta hauen artean sortu dituzte biharko egunean antzeztuko dituzten koreografiak.

Musika ere bai

Musikarekin ere modu bere-tsuen moldatu dira: instrumenturen bat jotzen duten ikasleak bildu dituzte: biola, baxua, tronboia, bateria, kitarra, trikitia, panderoa eta tinbalen doinuak izango direlarik, besteak beste.

«Behin behar diren ikasle guztiak bilduta, bilera bat egin genuen, eta poemak irakurtzeki ekin genion zein instrumenturekin, dantzarekin edo doinuarekin geratzen ziren hobekien erabakitze», esan dute Baraibarrek eta Larrañagak.

Ikastolako irakasleek ikasleek burutu duten lana azpimarratzen dute eta oso esperientzia aberasgarria izan dela diote: «Poesiarekin lan asko eginen dugu urtean zehar, baina, horrelako esperientziekin batez ere asko-asko ikasten dute ikasleek, gogotsu hartzen baitituzte oso honen gisako ekitaldiak».

Bihar izango da, beraz, arratsaldeko seieta Leidorren po-

EKITALDIA

Arratsaldeko seieta emango zaio hasiera Uxola sarien banaketa ekitaldiari eta Laskorain ikastolako ikasleen poesia errezitaldiari. Ondorengo osagaiak izango ditu ekitaldiak:

Sarrera. Laskorain ikastolako abesbatza Idoia Iraolaen zuzendaritzapean.

I. eta II. mailako literatur sariak. Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeko ordezkariak eta Estanislao Urruzola 'Uxola' zenaren seme-alabek banatuko dituzte.

Poesia emanaldia. Musika, dantza eta kantuz osatua Laskorain ikastolako ikasleen eskutik.

III. mailako literatur sariak. Uxola sarien antolatzaileek banatuko dituzte.

esia errezitaldia eta Uxola literatur sarien banaketa erkatuko dituen ospakizuna. Ikasleak izango dira protagonistak, beraiek baitira poemen egileak eta poemak errezitatuko dituztenak. Ikasleak izango dira dantzan eta kantuan ariko direnak, eta, era berean, instrumentuak eskuan doinu ezberdinez Leidor aretoan ikuskizun paregabea eskainiko dutenak.

Aurreko saioa ikusia duenarentzat ere egokia izango da ezbaierik gabe biharko emanaldia, ikuskizun bera eskainiagatik nekez izango baita ikusentzuleentzat errepikakor. Biharkoan entzun ahal izango diren olerkiez gozatzen hasteko, hona hemen otsaileko errezitaldian Laskorain ikastolako ikasleek errezitatutako poesietako bat: *Aldegin zenuen eta izenekoa*.

Aldegin zenuen eta / utzi ninduzun bakarrik / nire eskari guztiak ziren / den-denak alferrik / banatu eta zu ahaztu nahian / igaro dudak denbora / aldapsua izan da eta / ezin iragan gustura / urtebete pasa da eta uda heldu dela ikusirik / itxaropenak galduak ditut / ezin sentitu bizirik / hala ere gogoan darabilt / beti zure aurpegia / zu betiko ahanzteaz / izanen errazegia / maitasunez ase ninduzun / ez zaude nigaz zorretan / nire gogoa zuzana doa / ez dut dudarik horretan.

ESKERTZA ▶
RAMON SAGASTIBELTZA VIVANCO jaun hil berriaren seniden partetik, eskerrak samin agurra bidali zutenen guttiori.
Tolosa, 2004ko ekainaren 20a

iragarki laburrak ▶

Lorezainak, garbitzaileak, zerbitzu anitzak, sukaldari laguntzaileak, beharginak Eusko Jaurilitza eta udaletarako. Inkorporazioak: Donostia, Bergara, Hernani. Doako informazioa. 943 650193.
Igeltseroak, iturginak, arotzak, beharginak. Plaza finkoak udal eta Eusko Jaurilitzan. Doako informazioa. 943 650193.
Ezinduak. Erreserbatutako plaza finkoak. Lortu zure lanpostua udal eta

Eusko Jaurilitzan; garbitzaileak, gidariak, zaintzaileak, zerbitzariak. Doako informazioa. 943 650193.
Ezinduak. Lanpostu finkoak erresidentzia, ospital, ikastetxe eta egoitza publikoetan. Doako informazioa. 943 650193.
Harreragile-telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurilitza eta udaletan. Inkorporazioak laister. Doako informazioa. 943 650193.
Yate untzien gidaria. Lortu titulua

eta gozatu itsasoz. Doako informazioa. 943 650193.
Zaintzaileak. Haurrak eta agureak zaintzeko plaza finkoak udal eta Eusko Jaurilitzan. Doako informazioa. 943 650193.
Liburutegiko zaintzaileak, udal arribategi eta unibertsitateetan lan egiteko. Berehalako inkorporazioak. Doako informazioa. 943 650193.
Banketxe eta kutzak. Laguntzaileak behar dituzte. Ezinbestekoa: BBB.

Inkorporazioak laister. Doako informazioa. 943 650193.
Gizarte langilea. Inkorporazioak laister udaletan eta Foru Aldundian. Doako informazioa. 943 650193.
Osasunbidea. Administrazioak, erizain laguntzaileak eta OLTako 189 plaza. Doako informazioa. 943 650193.
Laborategiko teknikoa eta laguntzaileak, ingurugirokoak. Plaza libreak erakunde ofizialeetan. Doako informazioa. 943 650193.

TOLOSA ▶ DANTZA

Antzerkia eta dantza, elkarrekin

Jende ugari bildu zen atzo Leidorren Kultur Etxeko ikasleak ikusteko

IÑIGO TERRADILLOS

Ikuskizun paregabeaz gozatze-ko aukera izan zen atzo Leidor arteoan izandako dantza emanaldian. Urtero bezala, Kultur Etxeko dantza tailerreko Katixa Perea eta Ana Irazusta irakasleek eskaintzen dituzten dantza ikastaroetan parte hartzen duen jendea aritu zen eszenatoki gainean.

Dantza klasiko edo ballet ikastaroko eta dantza garaikideko ikasleak ziren guztiak, hiru urte dituzten haurtxoetatik, hamahiru urteko gaztetxoetara bitartekoak; helduek ere

hartzen dute parte, baina dantza garaikideko ikastaroan. Ekainean, urte osoan zehar ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera izaten dute urtero.

Atzo eskainitakoak bi zati izan zituen: lehenengoan, irakasleek prestatutako koreografiak eskaini zituzten hamahiru taldeek. Flamenco ukitua zuen dantzaz ere gozatzeko aukera izan zen atal honetan, Donostian irakasle den Soledad Ruiz bailaoraren laguntza aipatu behar delarik koreografia mota hau prestatzerako orduan.

Bigarrenengoan, *Oz-eko aztia* ipuinaren errepresentazioa izan zen ikusgai taula gainean; kasu honetan, ia 140 ikaslek hartu zuten parte, paper garrrantzitsuenak adituenen esku geratu zirelarik.

16:30etan hasita ikuskizun zoragarriaz gozatzeko aukera izan zuen bertaratu zen jendetza. Haurtxo askok hartu zuen parte, eta beraz, gurasoak ere han ziren beraien seme-alabez harro sentitzeko arrazoi askorekin. Bertan bildutako jendek saioaren amaieran txalo zaparrada luzea eskaini zien parte hartu zuten ikasleei, egin-



Dantzariak, atzo. I. TERRADILLOS

dako lanak gutxiagorako merezi ez zuelako. Datorren urtea arte agurtzen da, beraz, Leidor aretoa kolorez eta musikaz betetzen duen ikuskizuna.

IBARRA ▶ JAIK

Umeak izan ziren nagusi atzokoan

Goizeko jolasak eguraldiak moteldu bazituen ere, giro ona izan zen

ERREDAKZIOA

Gazte festen baitan, atzokoan egunezko ekitaldiak umeeztat bideratuta zeuden gehienbat. Horrela, goiz partean jolasak izan ziren herriko plazan bertan. Eguraldi goibel antza bazegoen ere, zeru estali eta langartsuarekin, han bertan bildu ziren umeez hainbat jolasetan parte hartzeko bidea izan zuten, denen artean erabakitakoak eta antolatutakoak: globoak lehertzea, harrapaketa, soka lotzea eta paineluairena, besteak beste.

Jolasetan 20-25 umek hartu zuten parte antolatzaileek adierazi zuten; beste alditan baino gutxiago, beraien uste-tan, «eguraldiaren eraginagatik». Dena den, bertaraturak-ak ederki asko ibili ziren, joko-tik jokora, ahoa gozatzeko tar-

tea ere hartzen baitzuten, gozo-gozo.

Eta arratsaldean ere izan zen zertaz gozatua herriko plazan; antzerki-az gozatzeko aukera izan zuten gaztetxoek eta ondoren, arratsaldeko zazpiak inguruan, ordurako pizten hasia zen gosea asetzeko aukera ere izan zen.

Arratsaldean zehar plazan bertan tortila erraldoi bat egiteari ekin zioten bertakoek gerturatzeko ziren guztiei eskaintzeko asmoz. Ondoren, postre goxoa zain zeukaten bertan bildutako guztiek: txokolata bero-beroa goitik behe-ra erortzen ari zen euri langar-rari aurre egiteko. Gauean gaupasa egiteko aukera ederra izanen zuten iragarrita zeuden dantzaldi eta kontzertuekin. Gaur gauean bukatuko dira Gazte Festak.



Soka jokoan korrika, hara eta honera. HITZA



Tortila erraldoia egiten denbora luzez aritu ziren. HITZA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Santa Maria, Nafarroa, 2, (Tolosa). 943 65 46 10.
Erbiti. Lizarraga, 7 (Leitza). 112
Bihar. Azpiroz M.L. Amaroz auzoa, 9 (Tolosa). 943 67 51 18.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LAN ESKAINTZA

Zaintzailea. Goizez lau ordutan, emakume heldu bat zaintzeko, pertsona bat behar da.
Telefona: 619 02 42 86.

SALGAI

Txirrindua. Errepideko txirrindua. Giani 03. Karbonozko orkila, Shimano Ultrega markarekin ekipatua: hiru platoz biela, Mavic gurpilak, bujeak. Sei hilabetez erabilia. M taila. Telefona: 620 33 59 70

TOLOSALDEKO HITZAK zozketatutako *Leidor Zinemaren* astebukaera honetan **'TROYA'** filma ikusteko bi sarreraren irabazlea: **ARANTXA DORRONSORO GARCIARENA (TOLOSA)**

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 20a, igandea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo,
Ameseta, Anzola, Balaran, Berasteg, Elduain, Hernialde,
Ibarra, Irura, Lamiar, Leizorua, Lizartza, Orendain, Oresa,
Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurilaria.

Kultura Saila

Tolosa Herria

GAURKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

beroa

20

hotzera

14

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

20

hotzera

14

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

20

hotzera

14

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

20

hotzera

14

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

20

hotzera

14

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

20

hotzera

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Betizu jaterako izen-emateko aken eguna. Ugarten izango da bazkaria. **Ibarra.** Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketarako txartelak salgai dira tabernetan. **Villabona.** AHTa pasatzen den inguruetatik ibilaldia, 09:00etan abiatuta. Gaur eta bihar, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik. **Tolosa.** Uxola literatur lehiaketako sarien banaketa eta Laskorain Ikastolako gazteen poesia emanaldia. Bihar, 18:00etan Leidorren.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Kultur Etxeko tailerretako ikasleen erakusketa Aranburu Jauregian. Hilaren bukaera arte izango dira ikusgai. **Tolosa.** Maria Carmen Gorbearren koadroak Saikin tabernan. Hilaren amaiera bitarte. **Tolosa.** Charo Berra pintore tolosarrak bere margolanak ditu ikusgai Lanbroan. Hilaren bukaera arte. **Tolosa.** Faustino Aranzabalen margolanak Aranburu Jauregian. Asteartetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara ikus daiteke erakusketa.

JAIAK

Ibarra. Gazte Festak: Stupenda Jones eta Automatik Kalashnikov kontzertuan Gaztebean 21:00etan. Aurretik Gazte Bazkaria egongo da. **Tolosa.** Sanjoanak: 10:00etan xake-jokoa, Zerkausan, Tolosako Xake Elkartek antolatuta: XXXI. Nazioarteko Lehiaketa taldeka, XXVIII. Enrique Pineda Memoriala. 11:00etan San Frantzisko ibiltokian, Harizpe elkarteak antolatuta, Toka Lehiaketa eta 13:00etan kontzertua Plaza Berrian, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrarekin.

ZINEMA

Tolosa. Troya. 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean eta asteartean (Ikuslearen eguna) 19:30ean eta 22:30ean.

Urte askoan

TOLOSA ▶ Harizpe elkarteak bere kiderik adinduenak omendu zituen



Harizpekoek atzo Frontonen izan zuten bazkariko une bat. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Harizpe, jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak, kide diren adintsuenak omendu zituen atzo, larunbata, egun beteko festarekin. Elkarteko kiderik adintsuenak, 87 eta 90 urte bitartean dituzten Victoriana Agirre, Brigida Alberdi, Pilar Gabarain, andereak eta Ramon Iraola, Frantzisko Alistiza eta Joxe Oreja jaunak dira eta beren elkartekide zein senitartekoen omena jaso zuten goizean goizetik. Eguna Siervas de Jesus elizan, Tolosako abesbatzak kantatutako meza entzunez hasi

zuten eta, gizarte-zentroan eskaini zitzaizen hamaiketakoarekin jarraitu. Fronton jatetxean izan zuten bazkarian bildu ziren 108 bazkalarrangandik jasotako animo eta txaloak izan ziren, ziurrunera, unerik hunkigarrienak sei gizon-emakume horientzat, bazkalondoa, beraien bizitzan egindako lana eta ahalegina eskertuz, opari eta oroigarriak eskaini baitzizkieten, bai elkartearen izenean, bere horretako lehendakariaren eskutik eta baita herriaren izenean ere, udaletxetik joan ziren ordezkariengandik. Urte askoan!

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Zorionak Markel (Baiarrain). Bihar urtebkoa. Naan, naan.



URTE ASKOAN

Helena Nuin (Anoeta). Bihar urteak betetzen ditu. Zorionak Manu eta Amaia en partetik. Muxu handi bat.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak... zoriontzeko, etorri!

HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitez harpidedun!

Egun gutxi geratzen dira!

943 30 43 46

astegunetan
(08:30etik 20:30era)
larunbatetan
(09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leizaldeko

hitza

DENDA HAUEN
Tolosaldeko HITZAren
LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izaguirre
- Ileapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizaribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin
- Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzaria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Lehoak
- Kanikak arropa denda

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN
%5*-eko
BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
(Martxoetik ekainera)
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!
*Promozio hau ez zaie beste beherapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.